# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

## 4717

*EBAZPENA, 2014ko urriaren 22koa, Lanbide Heziketako sailburuordearena, diru-laguntzak banatzen dituena, itunpeko ikastetxe pribatuetan prestakuntza iragankor integratuko programak emateko, baldin eta hasierako lanbide prestakuntzarako programak emateko itunduta baldin bazeuden 2013-2014 ikasturtean.*

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko irailaren 24ko Aginduak (urriaren 2ko EHAA) 2014-2015 ikasturterako diru-laguntzen deialdia egiten du, itunpeko ikastetxe pribatuetan prestakuntza iragankor integratuko programak emateko, baldin eta hasierako lanbide prestakuntzarako programak emateko itunduta baldin bazeuden 2013-2014 ikasturtean.

Beharrezko eskari-espedienteak aztertuta,

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Ebazpen honetako I. eranskinean zerrendatuta dauden ikastetxeei diru-laguntzak ematea, kasu bakoitzean zehazten den talde-kopururako eta bertan adierazten diren zenbatekoen arabera.

2. artikulua.– Diru-laguntza hiru epetan ordainduko da. Lehenengo ordainketa diru-laguntzaren % 33 izango da eta irailaren 24ko Aginduaren hamaikagarren oinarriko lehen atalean adierazitako epea iragan ondoren ordainduko da. Bigarren ordainketa, berriz, zenbateko osoaren % 57 izango da, eta bigarren hiruhilekoaren hasieran egingo da, agindu beraren hamaikagarren oinarriko 10. eta 11. atalek xedatzen dutena bete ondoren. Hirugarren ordainketa, azkenik, % 10 izango da eta ikasturtearen bukaeran egingo da, aipatutako aginduaren hamabigarren oinarrian adierazitako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

AZKEN XEDAPENA

Interesdunek ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jar diezaiokete Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 22a.

Lanbide Heziketako sailburuordea,
JORGE ARÉVALO TURRILLAS.

## I. GEHIGARRIA

## EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK

| Ikastetxea | Profila | 1. PFTI | |
|---|---|---|---|
| | | Diru-laguntza | Taldeak |
| **BIZKAIA** | | | |
| **CPEIPS San José de Calasanz HLBHIP** | Etxeko jardueretako eta mendeko pertsonentzako oinarrizko zaintzeko laguntzailea | 71.387,83 | 1 |
| | **Ikastetxekoa guztira** | **71.387,83** | **1** |
| **CPES Otxarkoaga BHIP** | Ile-apainketako laguntzailea | 74.088,35 | 1 |
| | Zurezko arotzeriako fabrikazioko, muntaiako eta akaberetako langilea | 82.825,26 | 1 |
| | Karrozeriako langilea | 80.505,31 | 1 |
| | Ekipo mikroinformatikoak mantentzeko langilea | 71.762,54 | 1 |
| | Ibilgailuak konpontzeko langilea | 83.254,13 | 1 |
| | Soldadurako langilea | 80.465,28 | 1 |
| | **Ikastetxekoa guztira** | **472.900,87** | **6** |
| **CPES Somorrostro BHIP** | Ile-apainketako laguntzailea | 74.088,35 | 1 |
| | Iturgintzako langilea | 75.704,34 | 1 |
| | Soldadurako langilea | 80.465,28 | 1 |
| | Instalazio elektrikoetako langilea | 76.429,13 | 1 |
| | **Ikastetxekoa guztira** | **306.687,10** | **4** |
| **Cpips San Viator HLBHIP** | Saltegiko eta biltegiko laguntzailea | 73.526,12 | 1 |
| | Instalazio elektrikoetako langilea | 76.429,13 | 1 |
| | Mekanizazioko langilea | 83.299,71 | 1 |
| | Ibilgailuak konpontzeko langilea | 166.508,26 | 2 |
| | **Ikastetxekoa guztira** | **399.763,22** | **5** |
| **CPEIPS Ángeles Custodios HLBHIP** | Etxeko jardueretako eta mendeko pertsonentzako oinarrizko zaintzeko laguntzailea | 71.387,83 | 1 |
| | **Ikastetxekoa guztira** | **71.387,83** | **1** |
| **CPEIPS Maristak San Miguel HLBHIP** | Instalazio elektrikoetako langilea | 76.429,13 | 1 |
| | **Ikastetxekoa guztira** | **76.429,13** | **1** |

| Ikastetxea | Profila | 1. PFTI | |
|---|---|---|---|
| | | Diru-laguntza | Taldeak |
| **GIPUZKOA** | | | |
| **CPEIPS La Salle Berrozpe HLBHIP** | Instalazio elektrikoetako langilea | 76.429,13 | 1 |
| | **Ikastetxekoa guztira** | **76.429,13** | **1** |
| **CPES Salesianos Urnieta BHIP** | Erreprodukzio grafikoko langilea | 71.957,74 | 1 |
| | **Ikastetxekoa guztira** | **71.957,74** | **1** |
| **CPEIPS Presentación de María HLBHIP** | Ekipo mikroinformatikoak mantentzeko langilea | 71.762,54 | 1 |
| | **Ikastetxekoa guztira** | **71.762,54** | **1** |
| **CPEIPS María Auxiliadora HLBHIP** | Ibilgailuak konpontzeko langilea | 83.254,13 | 1 |
| | **Ikastetxekoa guztira** | **83.254,13** | **1** |
| **ARABA** | | | |
| **CPEIPS Paula Montal HLBHIP** | Etxeko jardueretako eta mendeko pertsonentzako oinarrizko zaintzeko laguntzailea | 71.387,83 | 1 |
| | **Ikastetxekoa guztira** | **71.387,83** | **1** |
| **CPES Egibide BHIP** | Saltegiko eta biltegiko laguntzailea | 73.526,12 | 1 |
| | Zurezko arotzeriako fabrikazioko, muntaiako eta akaberetako langilea | 80.064,70 | 1 |
| | Instalazio elektrikoetako langilea | 152.858,26 | 2 |
| | Mekanizazioko langilea | 83.299,71 | *1* |
| | Gozogintzako eta okintzako langilea | 75.755,18 | 1 |
| | **Ikastetxekoa guztira** | **465.503,97** | **6** |
| | ***OSOTARA*** | ***2.238.851,32*** | ***29*** |